



# ERDIAROKO EUSKAL- IZENEN IDAZKERA (II ATALA) BALPUESTA'KO GOTZAIAREN LARRUKIAK.

## 804'EKO IDAZKI BAT (VI)

Buka dezagun Asturietako II Alfontso'k idatzitako gutun onen azterketa.  
Lau dira aztertzeke gelditu zitzaizkigun toki izenak:

BUSTO            RODIL            REIANTA            CAMBRIANA

BUSTO: "A fonte Sombrana usque ad foz de Busto": "Sombrana deritzan iturritik Busto'ko arrarte-lepo esturairño"

"Busto" Euskalerritik at ere ugari agertzen zaigun toki-izena da. Orrek ez du esan nai Euskalerrian agertzen danean euskalduna ez danik. Araba'n Busto Gazteiz'en egoaldean dagoan mendi-kateko muño bat da, ZUMELZU izenduan erriskaren gaiñean.

Mendi orren beste aldean bada, gaur Trebiño'ko Konterrian, bada BUSTO izeneko erri txiki bat ere, agian mendiari izena eman zion erria.

Ongi ezaguna zaigu guztioi Bizkai'ko Bizkargi mendiaren maldan dagoan BUSTURIA. "Bustu" ori "Busto" da, ezpairik gabe; eta izen osoaren etimologia, BUSTO-URI-A.

Milla aldiz zaillagoa gertatuko zaigu, "busto" k zer esan nai dezakean jakitea. Lopez Mendizabal'dar Isaka'k "busto" itzaren "B" ori, "proteti-koa", ots, "edergaillu" utsa dala diosku, eta "ustu" berriz, "avena salvaje" esan nai duan "ustu"ren aldakuntza. Baña zoritxarrez gure iztegieta ez da ori esan nai duan "ustu"rik agertzen.

"B" edergaillu utsa dala egia ba'litz, etimologi ziurragoa sortu genezake, "usto" gaurregun ere euskerazko itza dala eta "orri", ("hoja") eta "ostape" ("fronda") esan nai duala gogora ba'dakarkigu.

"Osto"ren aldakuntza besterik ez da, beraz, "usto". Ortaz, gure larrukiko ontako BUSTO, etimologiari dagokionez "OSTAPE", ots,"Osto Ugari duan Tokia" ote dugu?

Bi eragozpen irtetzen zaizkit aurrera ori zalantzarik gabe aitortu aal izateko:

Aurrenekoa, "usto" Naparroa'ko Euskeraren itza dala, eta larrukiko "Busto", berriz, Autrigoiien lurretan zegoala.

Bigarrena: Etimologigintzarako "itz protetikoetaz" ain errez baliatzea, batere atsegin ez zaidan gauza dala. Alare, oraingo ontan ontzat artu bearra dut "busto" askoz errezago, legunago eta goxoago agoskatzen dala "usto" baiño. Eta erriari itzak leguntzea ta goxatzea atsegin izan zaiola beti.

RODIL: "de Rodil usque ad Pennilla": "Rodil'dik Aitz Txikiraiño". Esan deza-dan bildurrik gabe, ez dakidala izen au zer izan daitekean. Larruki auek bein baiño geiagotan izan dira birridatziak-eta, izen ori aurreneko aldiz nola idatzia izan zan ez dakigu. Lateraz idatzitako dokumentu baten barruan datorkigu. Euskeraz erriak nola esan zezakean ez dakigu. Euskerak "R"z asten diran itz guztiei bezala, aurretik "E" bat edo "A" bat erasten ba'diogu, euskal-itxura aundiko itza biurtuko zaigu: ERRODIL, ARRODIL.

Danadala, Araba'ren sarkaldean, Autrigoiien lurrean beraz, bada RODIL deritzan 1.031 metroko mendi bat. RODA, berriz, abizen naparra da. "Quizá variante de ERROTA, Kerexeta'ren ustez.

REIANTA: "de Reianta usque ad S. Mariam": "Reianta'tik Santamari'raiño". Euskal-antza oro zearo galdurik datorkigun itza dugu noski reianta. Alare nik ez nuke esango euskalduna izanik.

"REI"z asten diran izenak baditugu gaurregun bertan: Reiza, Napa- rroa'ko Basaburu'n, Reizaldo Lazkano'n, Reiu, eta Reizu bi baserri Asteasu'n, Reizu Garaikoa eta Reizu Azpikoa, Reizabal Ormaitegi'n.

Ederki dio Kerexeta'k Reizabal ori Erreizabal'en aldakuntza dala. ri bera esan bearra dala iduritzen zait aipatu ditugun beste izenetaz ere: "R" bat peitzen zaiela, eta izen oien aurrizkia ERREI dala.

"ERREI", berriz, sarkaldeko euskeraz, bizkaieraz, ainzuzen Autrigoi- tarrek itzegiten zuten euskeraz, "SURCO" esaten da gazteleraz: Gipuzke- raz, "LDO".

Ikus emen "errei"z asten diran abizen eta toki-izenak: Erreillaga, Gipuzkoa'ko Baliarraiñ'en. Erreisala, 1750'ean, soro baten izena zan Araba'ko Betolaza'n; eta Araba'n bertan, 1676'ean, Gazeta'n alor bat. ERREITI, frantzeraz Villenave esaten dioten Benaparroa'ko erri baten izena dugu.

Zer ote da ANTA, Reianta'ren azkeneko zatia? Bilbao'ko euskal abizen lez dakar "Anta" ori Kerexeta'k bere iztegian eta ANZA'ren aldakuntza dala diosku. Anza, barniz Donosti'ko euskal-abizena dala. Anzano, Anzar eta Anzati Naparroa'n abizenak dirala. Antarriedo, berriz, toki-izena dugu Araba'ko Lapaebla de la Barka'n eta Kanpetzu'ko Santakruz'en. Baita Antazina ere Kanpetzu'n bertan.

Bere etimologia? Ez dakit. Kerexeta'k, Lopez Mendizabal'i jarraituz noski,

"larre" dala diosku; gazteleraz, "pastizal", "anda", "anza", "anzu"tik ornen datorelako, baiña tamalez, gure iztegiatan ez da deus orrelakorik agertzen.

Esan dezagun beraz izen euskalduna dala, baiñan bere etimologiarik ez dugula ezagutzen.

CAMBRIANA: Izen ori bezala "ANA"z amaitzen diran izenak asko ditugu Euskalerrian eta guk ere maiz mintzatu gera atzizki orri-buruz aldizkari ontan.

Ez dakit, ordea, "KANBRI" zer izan daitekean. Baiñan, naiz itxuraz aldatuta etorri, ez nuke esango euskalduna ez danik, "KAÑB" aurrizkiz asten diran izenak ere bai bait ditugu: Kanbo, adibidez, Laburdi'ko erri polita; Kanborain eta Kanbra euskal-abizen lez datoz Kerexeta'ren iztegian.

XI mendean, Kukulla'ko burni-barren larrukian KANBOA esaten zaio gaur GANBOA esaten diogun Araba'ko erriari. Ori, GAN aurrizkia, izan daiteke izen oien etimologira sartzeko ataka ziur bakarra, eta ez Mitxelena'k artu zuana.

Mitxelena'k "Kanbo"rik eta "Kanbo"tik etorri daitezkean abizenak ez ditu aipatu ere egiten. Soilki, "Kanbo" agian Kelta izan daitekeala dio eta "Ganboa" laterazko "Canpo"tik etorri daitekeala. Arrazoirik ez du ematen.

Gaztelerazko olerki txiki polit bat dakarkit orrek gogora:

"El mentir de las estrellas es muy seguro mentir  
porque nadie ha de ir a preguntárselo a ellas"

"Arriskurik gabeko gezurra, izarren gezurra;  
ez bait zaie iñor kontu-artzera joango".

Ez dut orrekin esan nai Mitxelena'k gezurra dionik, baiña izen euskaldunen etimologiaren billa Keltiarrengana jotzea gauza errezegia dala iruditzen zait, aspaldi ezabatu ziran keltiarretaz, eta bereiziki aien izkuntzaz ezer askorik ez bait dakigu. Eta euskeraz argitu daitezkean izen euskaldunen esana-aia argitzeko latifera jotzea ez dala zillegi esango nuke nik.

Izan erre "GANBOA"k sustrai euskalduna bai baiñ du: "GAN", gipuzkeraz "GAIN", euskeraz "cima" da: "la altura", "la parte alta del terreno". Adibidez, "Urbasa mendiaren gaiña dana da larre" ("La cima del monte Urbasa es todo pastizal").

Zer ote da "BOA". Azkeneko "A" ori artikuloa dugu beintzat. Eta "BO"? Ez dakit. Baiña arrazoirik eman gabe — ez bait dut arrazoirik — ni ere jostaketan asiz, "azpi" esan nai duten "BA" edo "BE"ren aldakuntza izan daitekeala esango nuke. Ortaz, "Ganbo" edo "Kanbo" "bajo la cima" izango litzake.

Danadala, erretolika oni anken-emanetz, larrukiko "Cambriana" zer izan daitekean ez dakidala, apalki aitortu bearrean aurkitzen naiz.

Besterik gabe, bukatu uzten dugu II Alfontso'ren larrukiko toki-i-zenen azalpena. Larruki orrek damaizkigun Doneen izenak gelditzen zaizkigu aztertzeke. Arras gai garrantzitsua, azterketa orrek sarkaldeko euskaldunengana erlijioa — ta erlijioa bide — kultura nondik sartu ziran esango bait digu

Latiegi'tar Bixente